Sukalde hartako giroarekin gogoratzen naiz, denok alkarrekin egoten ginan: ama, gehienetan janaria prestatzen edo senide txikiagoari titia ematen edo aldatzen, aitona edo aita artoa zuritzen nahiz aletzen edo ostri egiten, baita ebakitzen ere; sakristauak zirenez lan han beraiek egiten zuten, amona indoabak aletzen edo maindirak konpon-tzen; izeba josten, jostuna bait zen.

Gu gehienetan arto-koskolekin lurrean eserita jostatzen, haiek ziren gure "MEKANOK", eta bitartean denok abesten. Nik etxean, sukalde giroan makina bat abesti entzun, ikasi eta abestu nituen, euskaraz, latinez eta erderaz; zenbat aldiz abestu ote genuen "Ama maite Maria" eta Gabon kantak eta ez elizakoak bakarrik baita erderaz ere izebak abesten zituen "Tango", "Kuple", "Zarzuela" eta "Canción Española", izugarrizko errepertorioa; behin ere ez naiz ahaztuko zein gogoz abesten genituen.

Bakarren batek pentsa leike zertan azaltzen ditudan gauza hauek Herriko Aldizkari honetan, baina nik uste dut esan beharreko gauzak direla hauek. Gu anai-arreba gehienak herriko korutan, elizan eta koralean abestu dugu eta zaletasun hau etxetik dakarkigu, gure sukalde hartatik.

Han ere, beste gauza asko ikasi genituen, handik jende asko pasatzen zen egunero, gure ateak ez zuen giltzarik eta "AVE MARIA" esan eta aurrera etortzen ziren.

Oraingo gure sukaldeetan tresna hobeak ditugu, aurrerapen handiagoak bainan ez gera orduko lasaitasunarekin bizi, kezkati bihurtu gera, etxeko ateak giltzaz, morroiloz eta mirillaz ornituak ditugu, kaleko atea ere ondo itxita egongo da eta norbait datorrenean interfonotik enteratuko gera zein datorren atea iriki aurretik.

Eta ez hori bakarrik, orain seme alabek bakoitza beraien etxetan,aita-amak zahartu eta etxean bakarrik edo Erresidetzietan. Oraingo ume gehienek ez dute guk ezagutu genuen famili giroa ezagutu, eta horregatik nik muestra txiki bat azaltzen diet, guk gure ume denbora nola bizi izan genduen jakiteko.

M.ª Milagros Olano



"Nola ez gogoratu gure sukalde hura, nire lehengo oroimena abestea eta errezatzea da"

PRIMERAS MENCIONES DE CASERIOS DE BEASAIN

Zerrenda honetan agertzen diren baserri izenak, XVIII garren mendean "altxaturik" bazeudela aitortzen digu textu egileak. Bere ustez, bat edo beste falta izango balitz, dokumentuetan azaltzen ez direlako izango litzateke bere arrazoi nagusia

EN la edición de la revista BEASAIN FESTIVO, correspondiente a 1990, mi buen amigo y gran investigador José Zufiaurre Goya publicó un artículo titulado "ROL DE CASSAS DE BEASAIN", en el que presentaba un listado de los caseríos que figuraban en la relación de cofrades del "Glorioso Mártir San Martín de Loynaz natural y Patrón de la Villa de Beasayn" del año 1673.

Tras su lectura, me planteé la posibilidad de completar el esfuerzo de Zufiaurre, estudiando las primeras citas de los legajos y textos más antiguos contenidos en nuestros archivos de los caseríos de la villa.

En el caso del Archivo de Protocolos de Beasain, la documentación (contratos de casamiento, testamentos, compras, ventas, etc.) comienzan en el año 1725, cuando era escribano D. Domingo de Carrera. Sin embargo, los primeros asientos de bautismos en la Parroquia de la Asunción, hoy contenidos en el Archivo Diocesano de San Sebastián, datan de 1562; los de casados y finados de 1565; y la primera confirmación que ha quedado inscrita es de 1692.

A la vista de esto, optamos por repasar cada uno de los asientos de defunción de nuestra villa, lo que nos ocupó bastantes días de trabajo. Resultado de ello es la relación que aquí ofrecemos de todos los caseríos que figuran en esos fondos documentales, entre los siglos XVI y XVIII. Asimismo, incorporamos las aportaciones de otros autores; en concreto, los de varios artículos aparecidos en las publicaciones festivas de Beasain en los años 1979, 1987 y 1990, y también la obra editada en 1625 por el doctor don Lope Martínez de Isasti "Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa", en la que se desglosan las casas solares de nuestra villa en aquella fecha y anteriores.

En su transcripción, hemos conservado la grafía original, colocando entre paréntesis el año o los diferentes años en que dicho nombre consta en los documentos o artículos de autores actuales. En cada línea, citamos todos los nombres como se ha denominado un mismo caserío a lo largo del tiempo, con la fecha entre paréntesis del año o distintos años de la cita -por lo que no debe sorprender que aparezcan nombres tan distintos.

Tenemos que advertir que la ausencia de algún o algunos caseríos de los que algún lector acaso tenga constancia de su existencia hace más de doscientos años, puede deberse a que no figure en los documentos (por pérdida o rotura del mismo, o por no haberse inscrito u otra razón). Sin embargo, creemos que, si se da, será excepcionalmente, por lo que estamos en condiciones de afirmar que la relación que aquí comienza abarca a la práctica totalidad de los caseríos de Beasain construidos antes del siglo XVIII.

Confiamos que se entienda como una modesta aportación al conocimiento histórico de Beasain, con el mejor deseo de que algún día sirva a otros investigadores como ayuda en la realización de sus estudios, del mismo modo que hoy utilizamos el famoso "Compendio" de López de Isasi como herramienta fundamental en nuestro buceo del pasado de la provincia de Guipúzcoa.

Ugartemendi



ABARRIZQUETA (1625), ABARIZKETA (1978)
ABARRISQUETA DE ARRIBA (1673)
ABARRIZQUETA DE ABAXO (1673), ABARRIZQUETA DE ABAJO (1853), ABARRIZQUETA GARAICOA (1853)
AGUIRRE (1625), AGERRE (1978)
AGUIRRE ANDIA (1673), AGUIRRE LA MAYOR (1675), AGUIRRE AUNDIA (1853)
AGUIRREZABAL (1644) (1853), AGUIRREZAVAL (1673), AGERREZABAL (1978)
AGUIRRE ZARRA (1625)
ALTAMIRA (1667) (1978)
AMUNABAR (1625), AMUNARRO (1638), AMUNARRE (1650), AMUNABARO (1978)
ANÇIZAR (1637), ANZIZAR (1625) (1978)
ANGUIO (1673) (1853)
ARAMBERRI (1638) (1853) (1978)

ARAMBERRIA, alias MARTORENA (1673), MARTHORENA (1673), MARTORENA (1677) (1978)
ARAMBURO DE SUSO (1649), ARAMBURU DE SUSO (1667), ARAMBURU DE ARRIBA (1673) (1853), ARANBURU GARAKOA (1978)
ARAMBURU (1625)
ARAMBURU DE YUSSO (1663), ARAMBURU DE ABAXO (1673), ARAMBURO DE YUSSO (1676), ARAMBURU BAJO (1853), ARANBURU AZPIKOA (1978)
ARANA (1625), ARANEA (1853)
ARANCHIPI (1643), ARANCHIQUIA (1853), ARANTXIKI (1978)
ARANGOTI (1661), ARANGOITIA (1667), ARANGOITI (1978)
ARANZAMENDI (1625), ARANTZAMENDI (1978)
AREIZMENDI DE SUSO (1639), ARIZMENDI DE SUSSO (1644)
ARIZMENDI (1625) (1978)
ARTETA (1673) (1978)
ARRAMENDIA (1661)
ARRIETA (1625) (1853)
AZPICOECHEA (1673)

BARRENDAIN (1637) (1978), BARRENDAYN (1673)
VAÇAHARTE (1639), BASARTE (1651), BASAARTE (1692)
BASARTE DE ABAXO (1673), BASARTE BEKOA (1978)
BASARTE DE ARRIBA (1673), BASARTE DE SUSO (1680), BASARTE GOIKOA (1978)
VERASIARTU (1644), BERASIARTU (1625)
VIDAURRE (1639) (1853), BIDAURRE (1978)
BIDARTE (1625)

CASA DE LA PLAZA (1643), CASA DE LA PLAZA EN IGARZA (1673), CASA DE LAPLAZA (1676)
CHINCHURRETA (1661), nombrada BURUGORRI (1669), BURUGORRINEA (1673), BURUGORRI (1678),BURUGORRIENEA (1853), BURUGORRIÑEA (1978), TXINTXURRETA (1978)
CHINCHURRETA DE YUSSO, alias ÇAPAGUINDEGUI (1641)

DOLAREA (1649) (1978)

ECHEBERRI (1638), ECHEVERRI (1673), ETXEBERRIA (1978)
ECHELUCE (1625), ECHALUCE (1650) (1853), ECHALUZE (1662), ECHELUZE (1671)
EGUILEOR (1673), EGILEOR (1978)
ERAUSCAIN (1625)
HERAUSCAIN DE YUSSO (1648)
ERAUSQUIN ZARRA (1673), ERAUSCAIN ÇARRA (1680), ERAUZQUIN ZARRA (1853), ERAUSKIN ZAR (1978)
ERREMENTARIA (1673), ERREMENTARI (1978)
ESQUIAGA DE LA CALZADA (1673)
EZQUIAGA (1639)
EZQUIAGA DE ACA (1673)
EZQUIAGA DEL MEDIO (1642), EZKIA ERDI (1978)
EZQUIAGA LA MENOR (1663), EZQUIAGA MENOR (1670), EZKIA TXIKI (1978)
EZQUIAGA LA NUEVA (1671), EZQUIAGA BERRIA (1673)

FERMINENEA (1673) (1853), FERMIÑENEA (1978), FERMIN ENEA (1978)
FLOREAGA (1673)

GAINÇARAIN (1643)
GAINÇARAN DE ACA (1666), GAINZARAN DE ACA (1686)
GAINÇARAN DE ALLA (1679)
GANZARAIN LA MAYOR (1673), GANZARAIN MAYOR (1853), GANZARAIN AUNDI (1978)
GANZARAYN LA MENOR (1673), GANZARAIN MENOR (1853), GANZARAIN TXIKI (1978)
GAZTELA (1685), GAZTELU (1978)
GAZTELAMUÑO (1637), GAZTELAMUNO (1673)

IBARÇA - Casa solar y Palacio (1643), YARZA PALACIO (1853), IGARZA PALAZIO (1978), IGARZA ETXEA (1978)
IMETADI (1664), IMIATEGUI (1673) (1978), IMITEGUI (1689)
ITURRALDE (1673) (1978)
ITURRALDE MAIOR (1686)
ITURRIOZPE DE YUSO (1649), ITURRIZPE DE ABAXO (1673), ITURRAZPE BEKOA (1978)
ITURRIZPE (1699)
ITURRIZPE DE ARRIBA (1673), ITURRAZPE GARAKOA (1978)

LAZCAIBAR (1638), LAZCAYBAR (1675), LAZKAIBAR (1978)
LAZCAIBAR ANDIA (1625), LAZCAYBAR LA MAYOR (1645), LAZCAYBAR ANDIA (1673), LAZCAIBAR LA MAYOR (1677), LAZCAIBAR MAYOR (1853)
LAZCAIBAR CHIPI (1625), LAZCAYBAR CHIQUIA (1673), LAZCAIBAR MENOR (1682), LAZCAIBAR LA MENOR (1685)
LETEMENDIA (1625), LETE MUNDIA (1853), LETAMENDI (1978)
LOINEZ (1625), LOINAZ (1661) Ermita y casa, LOYNAZ (1677), LOINAZ (1978)
LOINAZ ERAUSCAIN (1698)
LOYNAZ ANDIA (1673)
LOYZENA (1673), LOYACENA (1698), LOICENEA (1853), LOITZENEA (1978)

MARAIRAS ((1672), MARIARAS (1673), MARIARATZ (1978)
MAYZENA (1673)
MAYZENA LA DE MACHAIN (1673)
MINARTE (185)
MOLINO DE ANGUIO (1668)
MOLINO DE YGARZA (1667), MOLINO DE IGARZA (1680), IGARZA ERROTA (1978)
MUGOYENA (1645)
MURUA (1625)
MURUA BARRENA (1673)
MURUA DE YUSSO (1643), MURU AZPI (1978), MURUAZPI (1978)
MURUAGOYENA (1637), MUGOYENA (1645), MURUA GOYENA (1662), MURUA DE SUSO (1662), MURUGOYENA (1673), MURUGOENA (1673), MURUAGOENA (1694), MURU GOENA (1978), MURUGOENA (1978)

NARRIO (1697)
NECOLA (1673), NEKOLA (1978)
NECOLA LA NUEVA (1679)

OLAÇAR (1645), OLAZAR (1853) (1978)

Altamira

OSURBE (1674)
OTAÑU (1662), OTAÑO (1625) (1978)
OTAÑU DE SUSO (1645)
OTAÑU DE YUSO (1645)
OTAÑU LA MAYOR (1666), OTAÑU MAYOR (1676), OTAÑU LA MAIOR (1683), OTAÑO AUNDI (1978)
OTAÑU LA MENOR (1673), OTAÑU MENOR (1683), OTAÑO TXIKI (1978)

PAGADIZABAL (1662) (1853) (1978), PAGADIZAVAL (1673)

RETARTE (1637), RECARTE (1662)
RECARTE ANDIA (1625)
RECARTE CHIPIA (1625), RECARTE LA MENOR (1672), RECARTE CHIQUIA (1673)
REZGARATE (1670), REZCARATE (1674)

SAGASTIGOITIA (1671)
SAGASTIGOITIA DE SUSO, alias IGARÇAESEA (1642), YGARÇAECHEA (1678)
SALDITURRETA (1685)
SALETSEA (1625), SALETE (1643) (1978), SALETEA (1673) (1853), SALETXE (1978)
SAN ANDRES (1677) (1852) (1978)
SEMPER (1625)
SEROREECHA (1673)
TAPIA (1672) (1978)
TELLERIA (1673), TELLERI (1978)

UBIA (1642)
UBIÑARTE (1673)
UBILLOS (1637) (1853), IBULUS (1978), UBILLOTES (1978), UBILLOTZ (1978)
UBILLOS LA MAYOR (1684)
UBILLOS LA MENOR (1673)
UGARTE (1625)
UGARTEMENDI (1625)
UGARTEMENDIA DE ABAXO (1673), UGARTEMENDI BEKOA (1978)
UGARTEMENDIA DE ACA (1673), UGARTEMENDI ALDEKOA (1978)
UGARTEMENDIA DE SUSO (1649), UGARTEMENDIA DE ARRIBA (1673), UGARTEMENDI GOIKOA (1978)
UNZEIN (1625), UNSAIN (1643) (1853) (1978), UNSAYN (1673)
USATEGUI (1637)
USSAYTURRIETA (1671), USSA ITURRIETA (1685)
USURBE (1673) (1853) (1978)

ÇALDIZURRETA (1639), ZALDIZURRETA (1673) (1978), ZALDIÇURRETA (1677)
CAPAGUIECHEA (1673)
ZELAETA (1675), ÇELAETA (1680), CELAETA (1697)
CELAETA DE LA CALZADA (1673)
CELAETA LA NUEBA (1644), CELAETA BERRIA (1673), ZELATA BERRI (1978)
CELAETA ZARRA (1643), ZELAETA LA VIEJA (1673), ZELAETA VIEJA (1680), ZELATA ZAR (1978)
CELAYEDERRA (1672), CELAIEDERRA (1673), ZELAYEDERRA (1673), ZELAIEDER (1978)
ZUBIMUSU (1673)

BARRIO DE ARAZ

ENDRIO (1668) (1978), ENRRIO (1673) (1853), ENRIO (1853)
IGARZA OLEA (1668), IGARZOLA (1978)
LA VENTA DEL BARRIO DE ARAZ (1639), VENTA (1668), BENTA (1673), VENTA DE ARAAZ (1677), VENTA CHUDO (1853), BENTA ZARRA (1978), BENTA ZARRE (1978)
OTO (1663)
OTO DE YUSSO (1675)
OTO DE ALZIVAR (1673)
OTO DE JUAN DE LASA (1673)
OTO DE INSAUSTI (1673)
OTO GOENA (1673) (1978), OTOGOENA (1853)

BARRIO DE GARIN

ARGOYEN BERRIA (1673), ARGOIEN BERRIA (1853)
ARGOYEN ZARRA (1673), ARGOIENZARRA (1853), ARGOINZARRA (1853), ARGOIN ZAR (1978)
BAZTER ECHEA (1673), BAZTERRETXEA (1978), BAZTERRETXE (1978)
GARIN ARRESSEA (1673) (1853), GARIN ARRESE (1978)
HERLOETA (1673), ERLOETA (1853) (1978)
HERLOETA BERRIA (1673)
HERDICOECHEA (1673), ERDICOECHEA (1853), ERDIKO ETXE (1978)

Antxon Aguirre Sorondo

hunolt s.a tintas

TINTAS PARA LAS ARTES GRAFICAS

Flexografía - Huecograbado
Offset - Ofsset Rotativa

FABRICA EN:

Sempere, 14
Tel. (943) 88 21 50
Fax (948) 88 86 15
BEASAIN
(Guipúzcoa)

C.ª de Daganzo
Tel. (91) 889 18 13
Fax (91) 880 26 56
ALCALA DE HENARES
(Madrid)

Polígono Fuente del Jarro
Tel. (96) 132 18 04
Fax (96) 132 21 49
PATERNA
(Valencia)

BEASAINGO BASOEN BILAKAERA HISTORIAN

El trabajo titulado "La actividad forestal en el Goierri en los siglos XVIII-XX, desde los robledales-hayedos y tierras desarboladas a los pinares actuales" que resultó ganador del I. "Gerriko" Idazlan-Sariketa convocado por Goierriko Euskal Eskola en 1990, analiza la evolución de los bosques en el Goierri por una parte, y describe la actividad forestal en la misma comarca por otra. En esa ocasión, y a lo largo de este artículo, se exponen aspectos referentes a la evolución de los bosques y montes de Beasain durante su Historia

GOIERRIKO Euskal Eskolak 1990ean deitu zuen I. "Gerriko" Idazlan-Sariketaren irabazle suertatu zen "Basogintza Goierrin XVIII-XX. mendeetan, hariztipagadi eta sail zuhaizgabetuetatik gaurko pinudietara" (1) lanak, Goierriko basoen gorabeherak aztertzen ditu alde batetik, eta bertan egiten zen basogintzaren (2) berri ematen du bestetik. Orain eta hemen, Beasaingo basoen bilakaerari dagokiona azalduko dugu, basigontzaren teknika edota langintzaren argibideak beste baterako utziz.

Egunez egun, gure basoko zuhaitzak murrizten ari dira

Suposa daitekenez, Beasaingo basoek, beste edonongoek bezalaxe, denboraren poderioz eraldaketa haundi ala txikiagoak jasan zituzten. Eraldaketa hau Historian zehar, eta bi azken mende hauetan batez ere, honela labur daiteke:

Jatorrizko basoak

Badakigu Beasainek, Goierriren barruan egonik, beti izan duela berezko basoaberastasun haundia. Honela dio J. Alustizak bere "Euskal baserriaren inguruan" liburuan: "...gauza bera entzuten da Beasain aldetik ere, alegia, Salbatoretik hasi eta Mandubira bitartekoa, bagorik-bago eta hutsik egin gabe igero zitekeela dena". Teorikoki, jakin daiteke baso naturalek berez beteko zituzketen eremuak zeintzu diren, baldin eta gizakiaren eraginik jasan izan ez balute. Ildo honetatik, funtsean, Goierriko maila menditarra (500-600 m gainetik) pagadien nagusigokoa da, eta maila muinotarra (500-600 m azpitik) hariztienekoa. Nahiko fidagarritasun haundiz baiezta daiteke beraz, orain 4.000 urte inguru, bertako basoen ustiapena hasi aurretik, pagoak eta haritzak genituela gure lurralde honetan jaun eta jabe, beste zuhaitz-mota batzuen laguntzaz, beti ere.

Gizakiaren lehen eraginak

Neolitoan, lehen artzainak izan ziren, suaren bitartez, zenbait eremu beren artaldeentzat larre bila gorritzen hasi zirenak, bertako eraikuntza megalitiko ugariek adierazten digutenez. Mendeetan aurrera, luberriak behar zituzten nekarzariek jarraituko zioten basoen narruketari. Honela, Trikuaizti (Mandubia) tumuluan aurkitu diren Eneolito eta Brontze-Aroko aizkora sendo eta gogorrek basobotatze lana garrantzitsua zela pentsa erazten dute, laborantzarako edo larretarako sailak lortu asmoz.

Erdi-Arotik aurrera

Feudalismo Garatuaren (1450-1880) garaian, Goierri guztikoak bezalaxe, ikazkintza eta untzigintzarako egurdun basoak ziren Beasaingoak ere.

XVIII. mendean

Mende honetakoak dira orain arte gure eskuetan ditugun lehen datuak, 1784ean Espainiako "Marina Real"ak bultzaturiko baso-inbentarioari esker. Erakunde honek arreta berezia erakutsi zuen bere itsas-untziteria eraikitzeko egurgaiak eskeintzen zituzten baso-sailak kontrolpean izaten. Beasain, basoaberastasun aldetik jurisdizio interesgarritzat jotzen zen 1748ko Urtarrilaren 31ko Mendien Erret Ordenantza Orokorrean. Honela, Gipuzkoako Aldundiak udalerri bakoitzari bere basoei buruzko txostena eskatu zion, zuhaitzen kopurua, hauen ezaugarriak, adina, etab adieraziz.

Inbentario honi egotz dakizkiokeen hainbat erreparo alde batetara baztertuz, suposa daiteke sasoi hartan Beasainen 78.205 haritz, 76.630 pago eta 28.935 gaztainondo zeudela besteak beste. Honek esan nahi du, udalerriaren % 29a gutxi gorabehera arbolez estalia aurkitzen zela. Aipa dezagun batazbeste Goierrik % 39a eta Gipuzkoak % 25a zituztela zuhaiztuak. Beraz Beasaingo basoak Goierriko batazbestekoaren azpitik baldin bazeuden ere, Gipuzkoarenaren gainetik mantentzen ziren 1784ko urte hartan.

Basoen atzerakada bortitza

XVIII. mendetik aurrera basoen desagertze-joerak etengabe jarraitu zuen eta atzerakada honen eragile nagusiak honako hauek suertatu ziren:

- Burdinolak: XVII, XVIII eta XIX. mendeetan garrantzi haundiko bihurtu zen ikatzegurraren kontsumoa, basoetan sarraski galantak eragin zituena. Beasainen Igartzakoa bezalako burdinolak genituen jo eta ke lanean. Adibide gisa, Igartzak, urteko 1000-1500 Kintale Metrikoen arteko burdin ekoizpena zuen eta datu honetatik atera daiteke, urtero 656 ha-ko baso-azalera moztu behar zela aipatu burdinola hori egurrikatzez hornitu ahal izateko. Kontuan izan Beasaingo udalerriak guztira 3.002 ha dituela eta Goierri osoak berriz, 29.236 ha.

- Haritza eta gaztainaren gaitzak: 1870etik 1920ra baso-aberastasunaren desegitean parte hartu duen beste faktore bat da. Garrantzi haundikoak ziren harizti eta gaztainadiak, bai egurra eta bai ematen zituzten fruituengatik. Baina behar ez bezala inausteak, eraikuntzarako ondozko bikainenak ateratzeak, eta ondorioz, mendian kaxkarrenak uzteak, gaitzei ateak ireki zizkien arboladiaren ahultze bat bultzatu zuten. Gaztainaren tinta eta haritzaren hauts zuria edo oidium-ak sekulako sarraskia burutu zuten oso epe motzean.

- Nekazaritzarako luberriketak, untzigintza, inaurkinen ateratzea, gehiegizko artzantza, artzantzak eragindako baso erreketak: mendietan kalte larriak sortu izan dituzte guzti hauek ere.

Murrizketak ondorioak dakartza eguraldian eta...

XX. mendeko baso-iraultza

XX. mendean nolabaiteko baso-iraultza gertatu da, bai Goierri eta bai Gipuzkoa osoan. Iraultza honen ezaugarri nagusia mende hasieratik 50.eko hamarkadararte eman zen baso-sartzeen ugalketa izango da. Garapen hau, bat egiten duten bi gertaeren emaitza izan zen:

- Foru Aldundiak mende hastapenean marxan jarri zuen baso-sartze politika, hostozabaldun basoen atzerakada larriak eta alferrik zeuden otalur-sail

zabalen esistentziak kezkatuta, espezie kanpotarren (koniferoak gehienak) erabilera bultzatu zuena.

- Probintziaren industrialtze eta hiritartze aurrerakorra, zeinak basoaren eginkizunaren aldaketa bat ekarriko duen landa-espazioaren barruan. Nekazaritzaren espezialtzeak eta modernizatzeak, nekazal eremuaren gutxitzea, eta ondorioz, baso-sailen zabaltzea onatuko du. Bestalde, industrialtzeak baso-gaien eskaera haundituko du eta intsinis pinuaren aldaketak inbertsio erakargarri bihurtuko dira basojabeentzat.

60.eko hamarkadako industrieztandak abiadura haundituu zion garapen honi, eta noranahi hedatu ziren pinu-aldaketa hauek, Beasaingo paisajea sakonki itxuraldatzeraino iritsi ziren.

Gaurko egoera

Aurreko eragile eta gorabehera guztien ondorio da gaurko gure basoen egoera (3). Beasaingo azaleraren 3.002 ha-k honela banatzen dira erabileraren aldetik:

Erabilitako Nekazal Azalera 577 ha % 19,22.

Sastrakadia 95 ha % 3,16.

Lur alferra 18 ha % 0,60.

Erabilera mistoa 195 ha % 6,50.

Baso zuhaiztua 2117 ha % 70,50.

Ikusten denez, basoen azalera nahikoa garrantzitsua dugu gaur egun, orain 200 urtekoaren ondoan behintzat. Baso zuhaiztuaren % 70 horren % 47a koniferoei (intsinis pinuari batez ere) dagokie eta beste % 23a hostozabalei.

Bukatzeko

Esan daiteke, Beasainen azken 200 urte hauetan, basoen azalera bikoiztu baino gehiago egin dela, % 29tik % 70era pasa baita. Gehikuntza hau, noski, zuhaiztu gabeko azaleraren bizkarretik egin da, hau da, basoek nekazal lurrari eta sastrakadiari jan dizkiete lurrak. Eta era berean, bikoizketa hau, kanpotar koniferoen erabileraren bitartez lortu da, bertako zuhaitzez osatutako sailek atzeraka egin bait dute (% 29tik % 23ra).

Dena dela, pinudiek bertako hostozabaldun basoak ordezkatu dituztenaren pentsakera zabaldua okerra dela garbi gelditzen da, Beasaini dagokionean behintzat. Gehienera azaleraren % 6an gertatuko baitzen horrelakorik. Gainontzeko % 41ean nekazala lur, sastrakadi eta horrelakoetan sartua izan dela suposatzea da zilegiena.

Bi hostozabal nagusiei dagokienez, hau da, pagoa eta haritza, bien artean % 26a inguru suposatzetik, % 20ra pasa dira, beherakada nabarmenena haritzarena izanik (% 12tik % 2ra).

Hala ere, hostozabalen artean jetsiera erlatibo haundiena jasan duen espeziea, inongo zalantzarik gabe, gaztainondoa izan da, berrehun urte hauetan % 90ean gutxitu baita estaltzen duen azalera. Gainbeherakada hau, gaitzen erasoari zor zaio gehienbat.

Ziur gaude iraganean gertatutakoaren berri izatea baliagarri eta lagungarria gerta dakigukela, oraina ulertu eta etorkizuna zuzen antolatzeko orduan.

Mikel Sarriegi

---

1. Idazlan honen berri zehatzagorik nahi duenak jo beza honako argitalpen honetara: I. "Gerriko" Idazlan-Sariketa, Goierriko Euskal Eskola (G.E.E. I), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1991.

2. Basogintzaz ulertzen da basoen lantze, zaintze eta ustiatzearen zientzia eta iharduera.

3. Ikus E.H.K.A.ko 1986ko Baso-inbentarioa, EUSKO JAURLARITZA, Gasteiz, 1988.

Especialista en:

• MONTAÑA

• ESCALADA

• ESQUI

K-2

Zaldizurreta, 3

☎ 88 16 66

BEASAIN

BEASAINEN IZANDAKO ALKATEAK (EX-ALCALDES DE BEASAIN)

Iaz, Beasaingo auzoak aurkezten genituen joku moduan. Aurten, saio honekin jarraituz, aurkezten dizkizuegu Beasaingo udaletxeko izandako buruzagiak. Aurretik, eskeini eduki ditugun erreztasunak gure lana betetzeko.

Continuando con la línea iniciada el año pasado, mediante la cual os presentamos, a modo de juego, una pincelada del paisaje de la villa, este año llenamos la página con las caras de una serie de ex-alcaldes (uno no lo es) de nuestro pueblo.
Ni las más prestigiosas revistas del corazón nacionales hubieran conseguido semejante exclusiva. No obstante, y al tratarse del "Beasain Festivo", la colaboración solicitada ha contado con una respuesta de disposición y afirmación a la confección de este apartado.
(NOTA): No creáis que el "peque" se trata de un entrometido o un fallo. Es de carne y hueso, y ha dirigido las riendas del Ayuntamiento

1. Izena _____

2. Izena _____



3. Izena _____

4. Izena _____

5. Izena

6. Izena

7. Izena

8. Izena

SOLUZIOA:

1. Pablo Hunolt 1957-1966
2. Francisco Tellería 1966-1969
3. José Antonio Imaz 1983-1987
4. Juan Lasa 1979-1983
5. José Luis Arriola 1991-....
6. Luis M.ª Unzueta 1969-1976
7. Iñaki Ergüin 1987-1991
8. Miguel Alvarez 1976-1979

GRAFICAS SAN MARTIN

INPRIMATEGIA - LIBURUDENDA
IMPRENTA - LIBRERIA

FUEROS, 1 (Lizeo ondoan) (Junto al Lizeo) TEL. 882468 BEASAIN

GOIERRIKO LEHEN BIZTANLEAK

ARTIKULU honetan, Goierri inguruan ezagutzen ditugun aztarnarik zaharrenak aipatuko ditugu. Hauen garrantzia ez da kasu guztietan berdina, baina beti ere argitasun piska bat eskeintzen digute hain ilunak diren historiaurrearen lehen momentuaz.

Oraingoz, lurralde honetan ezagutzen dugun tresnarik zaharrena Baiarrateko haitzartean (Aralar) aurkitu genuen karraskailu horztuna dugu. Honen kronologia, bere tipologiaren arabera Erdi-Paleolitoan edo Moustier kulturan koka daiteke, hau da duela 40.000 eta 100.000 urte tartean. Ez litzateke harritzekoa izango garai horretako beste aztarna batzu agertzea, gure lurraldeko beste zenbait tokitan bezala, adibidez: Urbasan, Amaldako haitzuloan (Aizarnazabal), Lezetxiki (Arrasate), Axlor (Dima), Isturitz (Behenafarroan), etb.

Kronologikoki, aztarna hauen ondorengoak J. M. Barandiaranek duela 20 bat urte Usategi haitzuloan (Ataun) aurkituak ditugu. Hemen jasotako harrizko industriak ez zuen ia inolako daturik eskaini, baina bai hezurkizkoak, oso azpimarragarria delarik azagaia isturitztar zatia, Goi Perigodiar-garaiko (orain duela 24.000 bat urte garatu zen kultura) fosil-gidaria. Maila honen azpiko aztarnen kronologia ez dago zehazterik.

Ondorengo lekuko arkeologiko zaharrena J. M. Barandiaranek Ataungo Pikandieta haitzuloan aurkitutako oinalde zulatutako arrankazi zapala (orein adarrez egindakoa) dugu. Hau azilkulturakoa da, hots orain duela 10.000 bat urtetakoa.

Beste aurkikuntza isolatu bat (suharrizko bizkar eta trunkaduradun punta) Argarbiko trikuharritik gertu egin genuen. Honen kronologia zehaztea ez da erraza, baina uste dugu, behin behinean, Azken Magdalen-alditik aurrerantzekoa dela, agian Azilaldi edo Epipaleolito berantiargo bati dagokiolarik. Hau, ez litzateke harritzekoa izango Pikandietako arrankaziaren garaikidea izatea eta Holozenoko klima epeltzearekin (azken 11.500 urteetan) ezagutuko den lur berrien kolonizazioarekin (kasu honetan altueran) zer ikusirik izatea.

Lerro hauetan Goierriko aztarna paleolitoarren eskasia baieztatzea besterik ez dugu egin. Hau, neurri haundian, miaketa ezaren ondorio da, baina beste arrazoi bat airezabaleko aztarnategien kokatzearen zailtasunean legoke (hauetako asko hondatuta daude higaduragatik, bizigu mota hauek miatzea zaila da, etab.). Hala eta guztiz ere ez da ahaztu behar orain duela 40.000 eta 11.500 urte tartean izoztaro edo glaziazio garai ikusgarriak bizi izan zirela inguru honetan, eta Gipuzkoako zenbait toki (batez ere garaienak) ez zirela batere atseginak izango bizi izateko. Klima hotz horren frogak Aralarren bertan (Arritzagako morrenak) ditugu 400 m. eskasera. Horregatik, pentsa daiteke, hor aipaturiko tresna batzuk (Baiarratekoa, Usategikoak) izoztaro horien barnean ezagutu ziren epelaldi edo izoztarotartekoak direla eta gainontzekoak (Argabi, Pikandieta) klimak gaurko ezaugarriak hartu zituen momentuetakoak, zenbait tokitako elurrak urtu eta bizi izateko giro atseginagoa zegoen garaietakoa.

Oraingoz ezagutzen diren aztarna arkeologiko gehienak, egitura nabarmenekoak eta sendiak (trikuharri, iruinarri, etab.), azken sei mila urtetakoak dira. Hauetaz gain, baziren beste egitura xumeagoak ere, baina hauen aurkikuntza nahiko zaila egiten zaigu.

Baiarraten aurkitutako Erdi-Paleolitoko karraskailua

EN este artículo se mencionan los yacimientos más antiguos que se conocen en el medio goyerritarra. No todos ellos son tan destacados; pero, debido a lo desconocido de aquella época, siempre dan algo más de claridad al caso.

Por ahora, el instrumento más antiguo es la raedera dentada de Baiarrate (Aralar). Su cronología corresponde al Paleolítico Medio, y, concretamente, perteneciente a la cultura musteriense (hace 40.000 - 100.000 años). No sería de extrañar que apareciesen otros yacimientos de la misma época, tal como ocurrió en Urbasa, Lezetxiki, Axlor, Isturitz,...

Cronológicamente hablando, yacimientos posteriores a estos fueron hallados por Jose Miguel Barandiaran, hace unos veinte años, en la cueva Usategi de Ataun. La industria lítica, aquí localizada, no nos ofreció ningún dato; no así los fragmentos de hueso pertenecientes a la cultura perigordiense (hace 24.000 años, aproximadamente).

El siguiente testigo arqueológico es el hallado por Jose Miguel Barandiaran en la cueva Pikandieta de Ataun. Es un arpón aplastado elaborado con cuerno de ciervo.

Otro hallazgo aislado es una piedra de fogón, localizada cerca del dolmen de Argarbi. No es fácil datarla, pero podríamos situarla cronológicamente a finales de la cultura magdaleniense o quizá de la Aziliense.

Por otro lado, a través de este artículo, se afirma la escasez de restos paleolíticos en el Goierri, debido, sobre todo, a la escasez de exámenes o estudios y lo difícil de su análisis porque están muy destruidos por la erosión. Sin embargo, debemos recordar que entre los años 40.000 - 11.500 se produjo una época glacial que dificultó la vida en estas tierras (sobre todo, en las más altas). Prueba de ese clima frío, la tenemos en el mismo Aralar (morrenas de Arritzaga) a 400 metros de altitud. Por eso, se piensa que los instrumentos, antes mencionados de Baiarrate y Usategi, pertenecen a épocas templadas de las citadas glaciaciones.

Joxean Mujika

INDUSTRIAS MECANICAS
YURRE
IMY
- Construcción y reparación de maquinaria
- Mecanización de piezas según muestra o plano
Teléfonos, 885000 y 885004
OLABERRIA

GOIERRIKO

Algunas ideas sobre un futuro industrial en el Goierri

GUZTIOK entzun dugu industri krisialdiaz hitz egiten edota areago, geure etxeetan bertan jasaten ari gara. Era berean, gure industria zaharkituta, atzeratuta, lehiakortasuna galduta, etab. dagoela ere entzun dugu.

Dakigun beste datu bat zera da, Goierriko enpleguaren % 60a baino gehiago, industri sektoretik datorkigula, beraz, sektore honek eztul egiten badu, Eskualde osoak trankazoa harrapatu duen seinalea da.

Zer egin orduan? Itxaron eta zer gertatzen den ikustearen politika behintzat ez dirudi ona denik, izan ere, ezusteko galanta jaso bait dezakegu.

Beraz, mugitu beharra dago, baina norantz? Norantz zuzendu behar dituzte beren urratsak ekimena duten pertsona horiek, arriskuak beren gain hartzeko gai direnek, hitz batean esanda, etorkizuna alda dezaketen enpresari berri horiek?

LEHENIK ETA BEHIN, daukaguna sendotu behar dugu. Aztertzaile teoriko askok, egiten ez dakizkigun gauzetarantz jotzea gomendatzen dute, horiek etorkizuna berekin omen dute eta. Horrela, bioteknologiaz, zerbitzu handiez, etab. hitz egiten digute. Baina, nola ekingo diogu bide horri, prozesua ezagutzen ez badugu? Beraz, lehenik bederen, daukagunari eta egiten dakigunari zutik eutsi behar diogu eta ONGI eutsi ere.

"Idatzi honek gazte ekileren bati edo besteri begiak irekitzea espero dut eta, ondorioz, enpresari izatearen bide zail horretatik ibiltzen hastea"

Baina geurea den hau sendotzeko ere aldatu beharrean gaude. Garai berriei egokitu beharra dago, ongi pentsatutako inbertsioak eginez eta lehentasunak emanez, dirua baliabide urria dela onartuz eta gainera, estrategia edo jokamolde batzuek ere aldatu beharra dago.

Pertsonalki adibidez harritu egiten nau, Estatuan puntako garen arloetako batek, hala nola garabienak, hiru enpresa indartsurekin jarraitzeak, elkarren artean ia elkarlanik bideratu gabe eta elkarri lehia gogorra eginez gainera.

Ez ote litzateke askoz ere eraginkor eta lehiakorragoa, hurbiltze-prozesu bat izatea, Merkatal arloan edota Teknikoan elkarlanean hastea, CAD/CAMa bezalako kostu eta inbertsioak zentralizatuz adibidez?

Epe laburrerako egintza litzateke hau, baina epe ertainera, bateratzeetan ere pentsa liteke, Banketxe eta Kutxen arloan ezagutu ditugunen gisakoetan adibidez. Horrela, etorkizunari lasaitasun handiagoz begiratzeko adinako neurriak eta lehiakortasuna lituzkeen enpresa bat sortuko bait litzateke. Ziur aski arazorik izango litzateke, baina mozkinek eta irabaziek ondotxoz gaindituko lituzkete haiek.

CAFeko akzioen % 50a baino gehiago Euskal Kutxek kontrolatzeak, bere norabidea aldatu eta enpresari iraupenbermetasuna eman dio, interes arrotzei saltzeko zeuden arriskuen aurrean, ezen haiek, bere izate berbera ere arriskuan jar bait zezaketen. Berri hori, Goierrin urte askotan izan den berri ekonomikorik garrantzitsuena izan da.

TODOS hemos oído hablar de la crisis industrial o incluso la padecemos en nuestras propias casas. También nos suena eso de que nuestra industria está obsoleta, desfasada, no es competitiva, etc.

Otra cosa que conocemos es que más del 60% del empleo en el Goierri procede del sector industrial y por lo tanto, si dicho sector estornuda, la Comarca se acatarra.

¿Qué hacer entonces? Parece que no es buena la política de esperar y ver, pues nos podemos llevar un buen susto.

Por lo tanto hay que moverse, pero ¿en qué dirección? ¿hacia dónde tienen que encaminar sus pasos esas personas emprendedoras, capaces de asumir riesgos, en definitiva esos nuevos empresarios que pueden hacer cambiar el futuro?

En PRIMER LUGAR, tenemos que consolidar lo que tenemos. Muchos teóricos del análisis recomiendan evolucionar hacia cosas que no sabemos hacer, porque dicen que son las que tienen futuro. Así nos hablan de biotecnología, grandes servicios, etc. Pero, ¿cómo vamos a realizar semejante proceso si no conocemos esos temas?. Por lo tanto hay que insistir en que primeramente tenemos que mantener en pie lo que tenemos y que sabemos hacer y BIEN además.

Pero, para consolidar lo nuestro, tenemos que cambiar. Hay que adaptarse a los nuevos tiempos, realizar inversiones bien pensadas y priorizándolas, asumiendo que el dinero es un recurso escaso, pero además hay que cambiar algunas estrategias.

Personalmente me extraña que, por ejemplo, un sector en el que somos líderes en el Estado, como es el de las grúas, siga con tres potentes empresas y prácticamente sin colaboración entre ellas, haciéndose una competencia feroz.

¿No sería mucho más eficaz y competitivo, que tuvieran un proceso de acercamiento, empezaran a colaborar en áreas como la Comercial o en la Técnica, centralizando costosas inversiones, como el CAD/CAM?

Esto sería una acción a corto plazo, pero, a medio, se podría incluso en pensar en fusiones como las que hemos conocido en el mundo de la Banca o las Cajas, resultando una empresa con suficiente dimensión y competitiva como para mirar con más tranquilidad el futuro. Seguro que habrá problemas, pero los beneficios los superarán con creces.

El control por parte de las Cajas Vascas de más del 50% de las acciones de CAF, cambiando su Dirección y dando garantía de continuidad a la empresa, frente a los riesgos de venta a intereses extraños que hubieran hecho incluso peligrar su existencia, ha sido la noticia económica más importante para el Goyerri en los últimos años.

Beti ere Goierriko tren-makina izan den CAF (eta inoiz ez hobeki esana), une honetan aurrerantz urrats garrantzitsua eman eta Goierrik etorkizun ona izateko adina arrakasta eskura dezakeen enpresa buruzagia izateko zorian dago.

Ez naiz ahazten une honetan zailtasun gogorrak jasaten ari diren enpresez ere, baina badakit jakin, jadanik martxan jarriak diren birmoldaketa-egitasmoak badituztela eta aurrerantz jotzeko baikortasuna eta konfidantza ere badituztela. Lerro hauetatik, arrakastarik sutsuena opa diet.

BIGARRENIK, ekoitziak, zerbitzuak, etab. berreskuratu behar ditugu. Eskualdean sortzen diren beharrizanenak alegia, baina eskualdez kanpo erosi eta eskuratzen ditugunak. Adibide batzuek jarriko ditut:

– Beasaingo Udalean, halako merkatu-zundaketa bat egin dugu geure Herri-Etxeen garbiketa azpikontratatzea aztertzeko. Aurkeztu diren 3 enpresatatik, bat bera ere ez da Euskualdekoa. Egia ote da guk hemen Garbiketa-Enpresa bat sortzeko gazte ekimendunik ez dugulakoa?

Planteiamendu hau, beste udal-zerbitzu eta enpresa batzuetara ere zabal daiteke.

– Informatika-zerbitzuak. Nondik hornitzen dira une honetan gure Enpresen beharrizanak? Bilbo edota Donostiatik.

– Segurtasun-Enpresak. Gero eta gehiago haziko den merkatua da eta gure enpresek behar dutena.

– Ekoizpen-Injinerutzak. Makinen laguntzarako ekipamenduak edota elikatze-hobekuntzak, injinerutza-talde txikietan egiten dira, ekoitzia asmatu eta bere egintza azpikontratatzen dutenetan alegia.

AZKENIK, geure etxean bertan egundoko enpresa-sormeneko ahalbidea daukagu. CAFek berak urtean 12.000 Milioi pta. baino gehiagorenak erosten ditu eta horren zatirik handiena geure Eskualdez kanpotik sartzen da. Gaur egungo Zuzendaritzan badakit eskualdearekin lan egiteko ateak irekita dituen politika dagoela eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazio berarekin ere gauzatzen ari da hori. Zertarako hausten dugu burua ekoitzi berriak asmatzen, enpresari-mintegietan pentsatzen, etab.? Badago nahikoa lan eta arlo 12.000 Milioi pta. horiek aztertzen bertan eta etxean zer egin dezakegun pentsatzen.

Borondate onez betetako idazki honek, gazte ekileren bati edo besteri begiak irekitzea itxaro dut eta ondorioz, enpresari izatearen bide zail horretatik ibiltzen hastea. Batek bakarrik hori egingo balu ere, gustora sentituko nintzateke.

Esan beharrik ere ez dago, bide horretatik, Udaletik ahal den guztia bultzatuko dugula.

Azkenik, eskertu baino ez Beti-Bizi Elkarteari, urtekaria aurrera ateratzeko egiten duen ahalegina eta niri neuri eskainitako lekua. Beasaindar guztioi berriz, Loinatz-Jai atseginak igarotzea opa baino ez.

Beasain, 1992ko Otsailak 6
Jose Luis Arriola Trueba, ALKATEA

CAF, que siempre ha sido la locomotora (nunca mejor dicho) del Goyerri, está en estos momentos en condiciones de dar un salto adelante y ser esa empresa líder que con su éxito puede hacer que el Goierri tenga un buen futuro.

No me olvido de empresas que en estos momentos están atravesando serias dificultades, pero sé que disponen de planes de reconversión en marcha y hay optimismo y confianza en salir adelante. Desde estas líneas desearles los mayores éxitos.

En SEGUNDO LUGAR, tenemos que recuperar productos, servicios, etc. cuyas necesidades se generan en la Comarca y que en cambio se compran fuera de ella, y voy a poner unos ejemplos:– Desde el Ayuntamiento de Beasain, hemos hecho una prospección de mercado para estudiar la subcontratación de la limpieza de nuestros Edificios Públicos. De 3 empresas presentadas, ninguna es de la Comarca. ¿De verdad que no tenemos jóvenes emprendedores que sean capaces de crear una empresa de limpieza? Este planteamiento sería extensible a otros servicios municipales y también a empresas.

– Servicios de Informática. ¿Cómo se cubren las necesidades de nuestras empresas? En Bilbao o San Sebastián.

– Empresas de Seguridad, es un mercado que irá creciendo y que en nuestras empresas hace falta.

– Ingenierías de Producción. Los equipamientos de ayuda a máquinas o de mejoras de manutención se realizan con pequeñas ingenierías que idean el producto y subcontratan su realización.

FINALMENTE, tenemos un potencial enorme de generación de empresas en nuestra propia casa. CAF compra al año más de 12.000 Millones de ptas. viniendo gran parte de ello de fuera de nuestra Comarca. Me consta que en la actual Dirección hay una política de puertas abiertas y de colaboración con la Comarca, que se está plasmando en colaboraciones con la Fundación Goierriko Herrien Ekintza. Para qué rompernos la cabeza en imaginar productos nuevos, pensar en viveros de empresarios, etc. Hay suficiente campo y trabajo en analizar esos 12.000 Millones y decidir qué es lo que de eso podemos hacer en casa.

Espero que este escrito, cargado de buena voluntad, abra los ojos a algún joven emprendedor y comience a caminar por ese difícil oficio que es el de empresario. Con que lo hiciera alguno, me sentiría satisfecho.

No hay ni que decir, que en esa línea apoyaremos en todo lo que sea posible desde el Ayuntamiento.

Finalmente, agradecer a la Sociedad Beti Bizi el esfuerzo por sacar la revista adelante, el espacio que me han otorgado y desear a todos los beasaindarras unas felices Fiestas.

BEASAIN a 6 de Febrero de 1.992
El Alcalde, Jose Luis Arriola Trueba

Instalaciones **BOSTAK** S.L.

SANITARIOS - CALEFACCION
GAS (BUTANO-PROPANO-NATURAL, ETC.)

Avda. Navarra, 41 bajo
Teléfs. Oficina: 88 89 39 - Taller: 88 90 27

20200 BEASAIN
(Guipúzkoa)

LA PRESA DE ARRIARAN

La Presa de Arriaran, actualmente en construcción, será la solución del presente y del futuro para suministrar agua a los pueblos del Goierri. Tendrá un embalse de 3.200.000 m3 de agua. El costo total de la presa, incluido los trasvases, será del orden de 2.200.000.000 de ptas. Como elemento auxiliar a la presa, se construirá una Estación de Tratamiento de Agua Potable (E.T.A.P.) con capacidad de depuración de 200 l/seg. El costo de esta Estación será del orden de 700.000.000 ptas. También está prevista una estación meteorológica

ARRIARANEN GOIERRIKO UREN ITURRIA

Euskalerriko beste eskualdeetan gertatutakoaren, antzera, Goierriko bailaran ere urari buruz gertatu zaiguna zera da; ura besterik ez alde guztietan eta etxeko iturrian urik ez, batez ere uda garaian. Beraz, zer gertatzen da hemengo euri eta urekin?

Denok dakigun bezala bailara honetan eta Gipuzkoa osoan ere bai, topografi aldapatsua dugu eta euria egin hala urak ibaira doaz, eta era berean, azkar batean itsasorantz. Gogoratu dezagun ur-kopuru handia dela era honetan alde egiten diguna, zeren eta 1.530 l/m2/urteko euriteak bait ditugu batazbeste.

Egoera honen luza ezina nabarmena da gaurko beharrak gogoan izanez gero; herrietan geroz eta jendetza gehiago biltzen gara eta kontsumoa era berean gorantz doa.

Beste aldetik berriz, industrietan ere kontsumoa geroz eta handiagoa da ta arazoa ere bai noski.

Behar hauen erantzuna eta arazo guztien aterabideak une honetan aurrera doazela esan beharrean gaude eta ikus ditzagun:

1.) Hor daukagu Aralarren Lareoko urtegi ikusgarria bere 2.350.000 m3.tako kapazitatea eta 20 Ha ureztaturen azalerarekin.

2.) Arriango Presaren eraikuntz lanak begizta ditzakegu, jo ta ke ari bait dira bertan. Eraikuntza hau bukatua egon behar omen du datorren urteko Apirilean.

3.) Arriango Presara biltzen diren uren kutsadurak maneiatzeko behar den araztegiaren edo garbigailuaren (Edateko Uraren Tratemendu Estazioa E.U.T.E.) eraikuntza ere, subastatua izan da eta luzatu gabe norbaiti emango zaiola dirudi, zeren eta tresna hau ere, presarekin aldi berean eraiki beharko bait da.

BEHARRAK

Goierriko bailarak jendetza aldetik azken urte hauetan izan duen hazkuntza, eta uraren urritasuna, lehen esan den bezala gogoan eduki ezkero, aztertzerakoan esan dezakegu ez dagoela irtenbidea ematerik arazo honi Goierriko iturriak bildu eta errekatxoak, errekak eta ibaiak lehortuta utziz, orain arte egin den bezala. Irtenbidea plangintza jator batean dago eta badirudi oraingoan hortik doala gauza.

Lehenengo plangintza honen barruan sartzen diren herriak eta ur-beharrak, nola oraingoak hala etorkizunekoak, hauek dira:

HERRIAK	JENDETZA URTEA 1.986.a	JENDETZA IRIZPIDE-URTEA 1.995.a	JENDETZA IRIZPIDE-URTEA 2.010.a	UR KONTSUMOA m3/EGUNEKO EGUN-GOA	UR KONTSUMOA m3/EGUNEKO ERIZPIDEA URTEKO 1.995.a	UR KONTSUMOA m3/EGUNEKO ERIZPIDEA URTEKO 2.010.a
BEASAIN	12.408	35.454	39.059	2.666	430 1/BIZTAN/EGUNEKO HORNIDURAREKIN	460 1/BIZTAN/EGUNEKO HORNIDURAREKIN
ORDIZIA	9.448			1.668		
LAZKAO	5.250			752		
OLABERRIA	1.267			209		
IDIAZABAL	2.075			328		
SEGURA	1.391			246		
ORMAIZTEGI	1.292			646		
GUZTIRA	33.131	35.454	39.059	6.510	15.245	17.967

Hauek dira lehenengo plangintzako herriak eta datuak. Bigarren saiorako sartuak daude Zaldibia, Arama, Itsasondo eta Legorreta noizbait Amundaraingo Presa egiteko edo...

Jendetzaren kopurutaz esan beharra dago, etorkizunari begira egindako irizpideak, goiko taulan azaltzen diran bezala, ez dirala baieztatuko, zeren eta 1.986tik gaur arte herri hauetako jende kopuruak 871ko beherakada izan bait du.

Oraingo eguneroko kontsumoa, gorago agertzen den bezala, 6.516 m3takoa dugu, honen urteko balio-kidea 2.377.975 m3takoa da. Etorkizunean berriz, hau da, 2010. urterako irizpidea 6.558.006 m3takoa da alde-alde.

ARRIANGO PRESA

Presaren eraikuntz lanak, lehen esan den bezala, ari dira Arriaran errekan 236 m.takoa da alde-alde.

Bere arroa 7,534 Km2takoa da, bainan badira beste arro batzuk ere beste bost errekatxo hauetakoak, alegia; Mariarats, Gantzarian, Muru, Basakaitz eta Zabalondo. Bost errekatxo hauetan egin dira presa txiki bana eta beraien urak 11 km.tako urhodien bitartez Arriarango presara eramango dira. Errekatxo hauen arroa 3,169 km2tako da; beraz guztira 7,524 + 3,169 = 10,703 km2tako arroa hartuko du.

Urtegiaren ahalmena edo kapazitatea 3,2 Hm3takoa da, hau da 3.200.000 m3takoa.

Urtegia betetzeko, aztertu dezagun orain zer baliobide dagoen, esan ditugun arro hoietan. Azken 35 urtetan izan diren euriteen bataz-besteko datuak ditugu oinarri; eta estatistikek diotenez 1.530 l/m2/urteko euri egiten du Goierrin. Jakina da, euria egin ondoren, egindakoaren zati bat lurrindu egiten dela, beste zati bat

lurrak irentsi egiten duela eta azkenik beste zati bat (zenbat?) errekara joaten dela eta ur-hodien bitartez urtegira. Jo dezagun euritan erortzen denaren erdia iristen dela urtegira; hau da, 765 l/m2/urteko.

Lehenago esan dugun bezala arro guztiaren zabalera 10.703.000 m2takoa badugu eta 765 l/m2ko ur biltzen badugu, 8.187.759 m3 ur biltzen ditugu urtegira urtean zehar. Beraz esan genezake, urtegiaren kapazitatea ikusi ondoren, urtean 2,56 aldiz beteko dela urtegi hori.

Arriarango urtegia beteta!; hori duk osin beltza!; baita hedadura ere, berea izango du goeneko mailan dagoenean (284,50 m.tako kota), 16,91 Ha. arraioa!

ARAZTEGIA EDO GARBIGAILUA

Urtegian sartzen diren urak herrietara zabaldu baino lehen maneiatu behar bat badutela gauza nabarmena da, etxeetara edangarri irits daitezen eta horra hor presaren laguntzaile garrantzitsu eta beharrezkoa.

Edateko Uraren Tratamendu Estazioa (E.U.T.E.) delako araztegi hori Gipuzkoako Foru-Aldundiaren 1.985eko Hornidura eta Osasunketa-Plan Osokorraren barruan aurkitzen da; eta honentzako eginkizuna aurrikusita dagoenez 200 l. ur/segundoko maneiatzea da, edangarri bihur daitezen eta Goierriko etxeetara ondo eta garbi irits dadin.

Gogora dezagun lehenago esaten genuena; oraingo eguneroko kontsumoa 6.515 m3takoa dela eta bere baliokidea 75 l./seg; 2010. urterako berriz 17.967 m3takoa eta bere baliokidea 208 l./seg. izan liteke gehieneko; beraz argi dago araztegi honek oraingo eta etorkizuneko beharrak beteko dituela.

INGURUNEAN IZAN DEN ERAGINA ETA KONPONTZE NEURRIAK

Urtegiko maila goienekotik hasita, 10m.tako landaretza zerrenda bat jarriko da urtegira iristen den materia organiko kantitatea mugatzearren; horretarako, aurrez, gaur egun dauden zuhaitz, sasi, ote e.a. ebaki beharko dira.

Inguruko bide, lubizi eta urraketak konpondu eta berdetzeko aziak eta landareak eragin edo jarriko dira, bai noski.

Presak aparingarri berezi bat izango du baita ere, Nestor Basterretxea eskultoreak bertarako deseinatu duen eskultura bat hain zuzen.

ZENBAIT DATU JAKINGARRI

* Presaren goiera 60m.takoa
* Presaren kota garaiena 287m.
* Uharkatik presaren garaienera 51m.
* Presaren goeneko luzera 205m.
* Presaren goeneko zabalera 7m.
* Presaren oineko zabalera 45m.
* Hormigoi trinkotuaren bolumena 120.000 m3.
* Hormigoi ohiturazkoaren bolumena 14.610 m3.
* Presa inguruko bideen luzera 1.497 m.
* Ur-erekarketa presarantz (batazbestekoa) 9.804 Hm3/urt.
* Ur-erekarketaren baliokidea 317 l/seg.
* Bost presetatik ur-erekarketa (batazbes.) 1.852 Hm3/urt.
* Bost presetako ur-erekarketaren baliokidea 59 l/seg.
* Ura harzeko urzuloen kotak (281-273-262-252)
* Arro bakoitzean uzten den ur-ekologikoa (batazbes.) %10a
* Ura arro batetik bestera eramateko ibiliko diren ur-hodien diametroak (250-300-500-600) mm.takoak.
* Presaren sarreran izango den ur-hodi bakarraren diametroa 600 mm.takoa
* Eskulturaren aurrekontua 31.000.000

